



Manuel Asin Ikuspuntu jaialdiko zuzendari artistikoa, Baluarteke atarian, Iruñean. JACOBA MANTEROLA / FOKU

Ikertzeko balio duten distantziak

Iruñeko XVI. Ikuspuntu jaialdia martxoaren 14tik 19ra izanen da • Sail Ofizialean hamazazpi herrialdetako 21 film izango dira lehian • Lan eta Desbordamientos sail berriak ere badira

Olaia L. Garaialde Iruñea

Hurbiltasunaren eta urruntasunaren ideiak lantzea erabaki dute aurten Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko jaialdiaren antolatzaileek. Metafora batekin azaldu du hori Manuel Asin jaialdiko zuzendari artistikoa: «Teleskopioarekin urruntzen gara, eta mikroskopioarekin hurbildu; biek, zinemak gisa, ikertzeko aukera ematen digute. Plano orokorrekin, plano laburrekin eta horien arteko trantsizioek ikertzea, ezagutza, emozioak eta hausnarketak bultzatzen dituzte». Asinek atzo aurkeztu zituen jaialdiaren nondik norakoak, Iñaki Apeztegia Nafarroako

Gobernuko Kultura kontseilariarekin eta Teresa Morales de Alava jaialdiko zuzendari exekutiboarekin batera, Iruñeko Baluarteke auditoriumean, jaialdiaren egoitza nagusia.

Martxoaren 14an hasiko da festibalaren XVI. aldia, eta Ione Atenearen *Los caballos mueren al amanecer* filmak emanen dio hasiera. Lanaren erabateko estreinaldia izanen da. «Filmak transmititzen duen energiagatik aukeratu dugu; oso energia positiboa du, eta, aldi berean, apur bat malenkoniatsua da. Gainera, nafarra da», azaldu du Asinek. Filmaren zuzendaria hilda dauden pertsona batzuen etxean sartzen da, eta han dauden objektuetan jartzen

du arreta; hau da, objektu horietan dauden bizipenak eta esperientziak biltzen ditu.

Atenearenaz gain, hamazazpi herrialde baino gehiagotako beste hogeitaz bi film izango dira Sail Ofizialean, zeintzuetatik hemezortzi lehiatuko diren. Horietatik, bakarra izanen da euskaraz: hain zuzen ere, Arantza Santestebanen *918 Gau*. Zuzendariak kartzelan igarotako gauak biltzen ditu filmak, baita horren osteko gorabeherak ere. Beste hainbat zuzendariren lanak ere izango dira lehian: hala nola Yuri Moraoka, Laure Portier, Shireen Seno, Vica Kirchenbauer eta Javier Codesal zuzendarienak.

Sail Ofizialaz gain, beste zortzi ataletan banatu dituzte jaialdiko

filmak: Atzera Begirakoak, Dok-bizia, Ikuspuntu Labs, Foku Garaikideak, Saio Berezikiak, Hezkuntza Programa, Lan eta Desbordamientos. Azkeneko biak berriak dira. Lan izeneko sailean sormen prozesuen eta produkzioaren inguruko ekintzak egingo dituzte. Desbordamientos sailean zinema dokumentala eta bestelako hausnarketa eta gauza artistikoak landuko dituzte.

Gazteak protagonista

Ikuspuntu zuzendari artistikoa arabera, film batzuek ikusleak «harritik» dituzte; esate baterako, Javier Codesalen *Evangelio mayor* lanak –Sail Ofizialean erakutsiko dute–. «LGTBI pertsonentzako Madrilgo zahar egoitza batean grabatuta dago», azaldu du Asinek. Filmean, adinekoak diren sexu genero disidenteentzako gorputzetan eta bizipenetan jartzen du arreta zuzendariak.

Hezkuntza programa joan den urtean egindako berrikuntzetako bat da, eta Asinek azaldu du haurrek eta gazteek kontsumitzaile izateari utzi eta protagonista izaten hastea duela helburu: «Haurrak eta gazteak etorkizuneko ikusleak dira, eta hausnarketaren eta programazioaren bidez protagonista izatea eta jaialdia barrutik bizitzea nahi dugu, baita harreman berriak ere». Horretarako, Gazte programatzaile izeneko jarduerak berri bat antolatu dute. Helburua zera da, 15 eta 19 urte bitarteko hamabost gazteren artean film bat programatzea eta jaialdian aurkeztea. Apeztegiaren arabera, proiektua «transbertsala» da, eta jaialdiaren «nukleoa» ere bai. Horrez gain, azpimarratu du gutxika hazten ari dela.

Nira Burstein zinemagileak emanen dio amaiera jaialdiari, *Charm Circle* filmarekin. Bursteinen familiaren nondik norakoak kontatzen ditu lanak. «Zuzendariaren familiaren egunerokotasunean zentratzen da, eta horrek denongan eragiten du, bai hurbiltasunagatik eta baita edozein familiaren izaera eta xarma islatzen dituelako ere». Lan hori, *Los caballos mueren al amanecer* eta Kazuo Hararen *Minamata Mandala* lehiatik at emanen dituzte. Harak zuzendutako filma sei orduko dokumental bat da, eta luzeragatik utzi dute lehiak kanpo. Japoniarrek merkurioaren ondorioz jasandako kalteak irudietan bildu ditu zuzendariak.

Estereoskopía izeneko hiru argazkik irudikatzen dute aurtengo jaialdia. Nafarroako zenbait erreka islatzen dituzte: hala nola Arga ibaia. «Dimentsioekin jolastu

nahi izan dugu, zinemaren, hau da, mugimenduaren dimentsiora hurbiltzeko». Argazkien sakontasunarekin jolastuz, bi plano irudikatzen dituzte, eta plano horiek mugimendua sorrarazten dute.

Aurrez aurreko jaialdia

Asin zinema programatzailea, editorea, irakaslea eta idazlea da, eta zuzendaritza artistikoaren lekukoa hartu du aurten. Haren aurretik hauek izan ziren zuzendariak: Carlos Mugiro, Ana Herrera, Josetxo Cerdan, Oskar Alegria eta Garbifé Ortega. Asinek nabarmendu du «ardura handia» dela eta «ilusioz» hartu duela lana: «Jendearen laguntzaz, urte urte ikasten joango naiz». Horrez

Ione Atenearen 'Los caballos mueren al amanecer' filmak emanen dio hasiera zinemaldiari

Sail Ofizialean dauden filmetatik bakarra izanen da euskaraz: Arantza Santestebanen '918 Gau', hain zuzen ere

gain, jaialdiari egingo dizkion ekarpenak azaldu ditu: «Begiradan arreta jarri nahi nuen; urrutiko eta hurbileko begiradan. Gainerako antolatzaileek asko babestu zuten proposamena».

COVID-19ak Ikuspuntu jaialdian izan ditzakeen eraginez ere mintzatu ziren antolatzaileek. Aurrez aurreko formatua lehentsiko dutela azpimarratu zuten. Jaialdia martxoan izango denez, orduan indarrean egonen diren neurrien arabera jokatuko dutela ere nabarmendu zuten.